

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2008/95/EE ZUZENTARAUA, 2008ko urriaren 22koa, markei dagokionez estatu kideen legeriak hurbiltzeari buruzkoa (Kodetutako bertsioa)**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*DIRECTIVA 2008/95/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 22 de octubre de 2008, relativa a la aproximación de las legislaciones de los Estados miembros en materia de marcas*».(*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 299/25, 8.11.2008)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ZUZENTARAUAK

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2008/95/CE ZUZENTARAUA
2008ko urriaren 22koa
markei dagokionez estatu kideen legeriak hurbiltzeari buruzkoa
(Kodetutako bertsioa)
(Testu egokia EEEren ondorioetarako)

EUROPAR BATASUNENKO PARLAMENTUAK ETA KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 95. artikulua,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Tratatuaren 251. artikuluan araututako prozedurari jarraitu zaio ⁽²⁾,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Aldatu egin da Kontseiluaren 89/104/EEE Zuzentarauaren ⁽³⁾ edukia. Zuzentaria 1988ko abenduaren 21ekoa da, estatu kideek marken inguruan duten legeria hurbiltzeari buruzkoa. Zentzu eta argitasun handiagoa izan ditzan, Zuzentaria hori kodetzea komeni da.

(2) 89/104/CEE Zuzentaria indarrean sartu aurretik estatu kideetan markei aplikatzen zitzaizkien legeriek desberdintasunak zituzten, eta oztopatu egin zezaketen merkantzien zirkulazio askea nahiz zerbitzuak askatasunez ematea, bai eta lehiakortasun-baldintzak faltsutu ere merkatu batuan. Legeria horiek hurbildu beharra zegoen, beraz, barne-merkatuaren funtzionamendu egokia bermatzeko.

(3) Kontuan hartu behar dira Erkidegoko markaren araubideak zer nolako konponbideak eta abantailak eskaini diezazkiekeen markak eskuratu nahi dituzten enpresei.

(4) Ez dirudi beharrezkoa denik marken arloan estatu kideen legeriak erabat hurbiltzea. Aski da barne-merkatuaren jardueran eragin zuzenik handiena duten xedapen nazionalak hurbiltzea.

(5) Zuzentaria honek ez die estatu kideei ahalmenik kendu behar erabileraren poderioz eskuratutako markak babesten jarraitzeko. Aldiz, erregistroaren bidez eskuratutako markekin dituzten harremanak arautu behar ditu.

(6) Estatu kideek, era berean, askatasun osoa eduki behar dute marken erregistroari, iraungitzeari edo baliogabetasunari buruzko prozeduraren xedapenak arautzeko. Haien eskumena da, adibidez, erregistro- eta baliogabetasun-prozeduren modua arautzea; erabakitzea lehenagoko eskubideak erregistro-prozeduran edo baliogabetasun-prozeduran edo bietan argudia daitezkeen; edota, erregistro-prozeduran lehenagoko eskubideak argudia daitezkeenean, aurkakotasun-prozedura bat edo ofiziozko azterketa-prozedura bat edo biak aurreikustea. Estatu kideek gai izan behar dute marken iraungipena edo baliogabetasuna erabakitzeke.

(7) Zuzentaria honek ez ditu markak salbuesten estatu kideek dituzten marken zuzenbidez kanpoko Zuzenbidearen xedapenak aplikatetik, hala nola lehia desleialari buruzko xedapenak, erantzukizun zibila edo kontsumitzaileen babesa.

(8) Hurbiltzeak zera esan nahi du: estatu kide guztietan baldintza berberak daudela, berez, erregistratutako markaren gaineko eskubide bat eskuratzeko eta hari eusteko. Horretarako, marka izan daitezkeen ikurrak finkatzea komeni da, enpresa baten eta beste baten produktuak edo zerbitzuak bereizteko gai diren heinean. Marka bat ukatzeko edo baliogabetzeko arrazoiak —adibidez, izaera bereizgarririk eza— edo markaren edo lehenagoko eskubideen arteko gatazkak zehatz zerrendatu behar dira. Dena den, arrazoi horietako batzuk ez dira estatu kideek derrigorrez ezartzeko zerrendatu, eta

(1) C 161 EO, 2007-7-13koa, 44. or.

(2) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko ekainaren 19koa (C 146 E EO, 2008-6-12koa, 76. or.), eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko irailaren 25ekoa.

(3) L 40 EO, 1989-2-11koa, 1. or.

2008/95 EE Zuzentaria (EBren Egunkari Ofiziala, L 299/25, 2008.11.8).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

arrazoiak legerian sartu edo lehengoei eusteko aukera dute. Estatu kideek aukera izan behar dute marka-eskubidea eskuratzea edo edukitzea jarraitzea ukatzeko edo baliogabetzeko arrazoiak beren legerian sartzeko edo lehengo arrazoiei eusteko, hurbiltzeko xedapenik ez dagoenean. Adibidez marka baten titularra izateko legitimazioari buruzkoak, eta marka berritzeari, tasei edo prozedura-arauak ez betetzeari buruzkoak.

(9) Erkidegoan erregistratu eta babestutako marken guztirako kopurua murrizteko, eta, horrenbestez, haien arteko gatazkak ere murrizteko, erregistratutako markak benetan erabiltzen direla exijitu behar da. Bestela, iraungitzearekin zigortuko da. Aurreikusi beharra dago marka bat ezin dela baliogabetu erabili gabeko marka bat dagoelako lehendik; baina estatu kideen esku dago marka baten erregistroari printzipio bera aplikatzea, edo marka baten urratze-prozeduran ezin dela marka argudiatu, baldin eta frogaturik badago, salbuespen gisa, marka iraungitzat jo daitekeela. Kasu horietan guztietan, estatu kideei dagokie prozedura-arauak erabakitzea.

(10) Produktuen zirkulazio askea eta zerbitzuak askatasunez ematea errazteko, bermatu beharra dago erregistratutako markek babes bera dutela estatu kide guztien antolamendu juridikoetan. Dena dela, estatu kideek ahalmena dute babes zabalagoa emateko ospea lortu duten markei.

(11) Marka erregistratzearen helburua, batik bat, markaren jatorrizko funtzioa bermatzea da, eta babesak erabatekoa izan behar du identitatea dagoenean markaren eta ikurraren artean eta produktuen edo zerbitzuen artean. Babesa egon behar du, halaber, antzekotasuna dagoenean markaren eta ikurraren artean eta produktuen edo zerbitzuen artean. Antzekotasunaren nozioa nahasteko arriskuarekin lotuta interpretatu behar da. Nahasteko arriskua faktore askoren mende dago eta, bereziki, hauen mende: marka merkatuan ezaguna den ala ez, erabilitako edo erregistratutako ikurra markarekin lotzen den ala ez, marka eta ikurraren arteko eta produktuen edo zerbitzuen arteko antzekotasuna. Eta babesteko baldintza espezifikoak izan behar du. Nahasketaren arriskua frogatzeko bideak arautzea eta, batik bat, frogatu beharraren karga arautzea prozedura-arau nazionalak dagokie, eta ez da Zuzentarau honen xedea horiek hurbiltzea.

(12) Segurtasun juridikoa medio, eta lehenagoko marka baten titularraren eskubideak bidegabeki kaltetu gabe, aurreikusi beharra dago titular horrek ezin izango duela jadanik berearen ondorengo marka bat baliogabetu dadin eskatu edo hura erabiltzearen aurka egin, baldin eta haren erabilera denbora luzean eta jakinaren gainean onartu badu, non eta ondorengo markaren eskabidea ez den fede txarrez egin.

(13) Estatu kide guztiek sinatu dute industria-jabetza babesteko Pariseko Hitzarmena. Zuzentarau honetako xedapenek guztiz bat etorri behar dute Hitzarmen horretako xedapenekin. Zuzentarau honek ez die eragin behar Hitzarmen horren ondorioz estatu kideek dituzten betebeharrei. Hala balegokio, Tratatuaren 307. artikuluko bigarren paragrafoa aplikatu behar da.

(14) Zuzentarau honek ez die eragin behar estatu kideek I. eranskinaren B zatian datorren 89/104/EEE Zuzentaruau Zuzenbide nazionalera ekartzeko transposizio-epeari dagokionez dituzten betebeharrei.

ZUZENTARAU HAU ONETSI DUTE:

1. artikulua

Aplikazio-eremua

Zuzentarau hau aplikatuko zaie produktuen edo zerbitzuen marka indibidualei, kolektiboak, berme-markei edo ziurtapen-markei, baldin eta erregistratuta badaude edo erregistratzeko eskabidea egin badute estatu kide batean edo jabetza intelektualaren Beneluxeko Bulegoan, edo estatu kideren batean ondorioak dituen nazioarteko erregistro batean erregistratuta badaude.

2. artikulua

Marka bat izan daitezkeen ikurrak

Marka izan daitezke grafikoki irudika daitezkeen ikur guztiak, batez ere hitzak —baita pertsonen izenak ere—, marrazkiak eta ereduak, letrak, zenbakiak, produktuaren forma edo aurkezpena, baldin eta ikur horiek egokiak badira enpresa baten produktuak edo zerbitzuak beste enpresenetatik bereizteko.

2008/95 EE Zuzentaruau (EBren Egunkari Ofiziala, L 299/25, 2008.11.8).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. artikulua

Ukatzeko edo baliogabetzeko arrazoiak

1. Erregistroa ukatu edo, erregistratuta badaude, baliogabetu ahal izango zaie:

a) marka izan ezin diren ikurrei;

b) izaera bereizgarririk ez duten markei;

c) produktuaren edo zerbitzu-ematearen zer-nolakoa, kalitatea, kopurua, helburua, balioa, jatorri geografikoa, lortutako garaia, edo beste ezaugarri bat izendatzeko ikurrak edo oharrak besterik ez dituzten markei;

d) hizkuntza arruntean edo merkataritzako ohitura leial eta jarraituetan ohikoak bihurtu diren ikurrak edo oharrak besterik ez dituzten markei;

e) hauek besterik ez dituzten ikurrei:

i) produktuaren izaerak berak agindutako forma,

ii) produktuak emaitza tekniko bat eskuratzeko eduki behar duen forma,

iii) produktuari funtsezko balioa ematen dion forma;

f) ordena publikoaren edo ohitura onen kontra doazen markei;

g) oker pentsaraztea eragin dezaketen markei; adibidez, produktuaren edo zerbitzuaren izaera, kalitatea edo jatorri geografikoari buruz;

h) dagokien agintarien baimenik ezagatik, ukatu edo baliogabetu beharrekoak diren markei, hala agintzen duelako industria-jabetza babesteko Pariseko Hitzarmenaren 6ter artikulua (aurrerantzean, "Pariseko Hitzarmena").

2. Edozein estatu kidek ezarri ahal izango du marka baten erregistroa ukatzea edo, erregistratua baldin badago baliogabetzea, baldin eta:

a) marka horren erabilera debeka badaiteke interesatutako estatu kideak edo Erkidegoak marken arloan duen araudiaz besteko araudi baten arabera.

b) markak balio sinboliko handiko ikur bat badarama, batik bat sinbolo erlijioso bat;

c) Pariseko Hitzarmeneko 6ter artikuluan aipatu ez bezalako intsigniak, ikurrak edo ezkutuak baditu, interes publikokoak direnak, non eta dagokion agintaritzak ez duen erregistroa baimendu, estatu kideko legeriari jarraituz;

d) eskatzaileak marka erregistratzeko eskabidea fede txarrez egin badu.

3. Marka baten erregistroa ez da ukatuko, ez eta, erregistraturik badago, baliogabetuko ere, 1. paragrafoko b), c) edo d) idatz-zatien arabera, baldin eta, erregistroa eskatu den data baino lehen eta eman zaion erabileragatik, izaera bereizgarria eskuratu badu. Horretaz gainera, izaera bereizgarria erregistro-eskabidearen edo erregistro-dataren ondoren eskuratu denean ere, xedapen hau aplikatzea erabaki ahal izango dute estatu kideek.

4. Nolanahi ere., 1., 2. eta 3. paragrafoek diotena gorabehera, edozein estatu kidek erabaki ahal izango du 89/104/EEE Zuzentarauak dioena betetzeko behar diren xedapenak indarrean sartu aurretik indarrean zeuden erregistroa ukatzeko edo baliogabetzeko arrazoiak aplikatuko zaizkiola erregistratzeko eskaera xedapenak indarrean sartzeko data baino lehen egin zuten markei.

4. artikulua

Ukatzeko edo baliogabetzeko beste arrazoi batzuk, lehenagoko eskubideekiko gatazkengatik

2008/95 EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 299/25, 2008.11.8).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Marka baten erregistroa ukatu egingo da edo, erregistratua badago, baliogabetu ahal izango da:

- a) lehenagoko marka baten berdina bada, eta lehenagoko markak babestuta dituen produktuak edo zerbitzuak eta eskatutako edo erregistratutako markaren produktuak edo zerbitzuak berdinak badira.
- b) lehenagoko markaren berdina edo antzekoa izanik, eta bi marken produktuak edo zerbitzuak berdinak edo antzekoak izanik, jendea nahasteko arriskua badago; hau da, lehenagoko markarekin lotzeko arriskua badago.

2. 1. paragrafoaren ondorioetako, honako hauek dira «lehenagoko markak»:

c) marka eskatu aurretik erregistroa eskatuta duten markak, kontuan hartuz marka horien alde argudiatutako lehentasun-
eskubidea, kategoria hauetako markak badira:

i) Erkidegoko markak,

ii) Estatu kidean erregistratutako markak edo, Belgikari, Luxenburgori eta Herbehereei dagokienez, jabetza
intelektualaren Beneluxeko Bulegoan erregistratutakoak.

iii) nazioartean erregistratu eta estatu kidean ondorioak dituzten markak;

b) Kontseiluaren markari buruzko 40/94 (EE) Araudiaren ⁽¹⁾ arabera (1993ko abenduaren 20koa) Zuzentarau honetako a)
idatz-zatiaren ii) eta iii) tartekietan aipatutako Erkidegoko marketikiko antzinasuna behar bezala aldarrikatzen duten
Erkidegoko markak, nahiz eta marka hori ukatuta edo iraungita egon;

c) Arau honetako a) eta b) idatz-zatiek aipatutako marka-eskabideak, baldin eta erregistraturik badaude;

d) markaren erregistroa eskatu den datan, edo markaren erregistroa eskatzeko aldarrikatutako lehentasun-datan, estatu kide
batean «aski ezagunak» diren markak, Pariseko Hitzarmenaren 6 bis artikuluen zentzuan.

3. Halaber, markaren erregistroa ukatuko da, edo, erregistraturik badago, baliogabetu ahal izango da, Erkidegoko
lehenagoko marka baten berdina edo antzekoa bada 2. paragrafoaren zentzuan, eta lehenagoko marka haren antzekoak ez
diren produktu edo zerbitzuetarako eskatu bada erregistroa edo erregistratu bada, lehenagoko marka Erkidegoan ospetsua
izanik, bidezko arrazoirik gabe ondorengo marka erabiliz lehenagoko markaren izaera bereizgarria eta ospearen abantaila
desleiala eskuratu nahi bada, edo marka erabiliz hari kaltea eragin badiezaiokie.

4. Gainera, edozein estatu kidek erabaki ahal izango du marka baten erregistroa ukatzea edo, erregistratua baldin badago
baliogabetzea, baldin eta:

a) lehenagoko marka nazional baten berdina edo antzekoa bada 2. paragrafoaren zentzuan, eta lehenagoko marka haren
antzekoak ez diren produktu edo zerbitzuetarako eskatu bada erregistroa edo erregistratu bada, lehenagoko marka estatu
kide horretan ospetsua izanik, bidezko arrazoirik gabe ondorengo marka erabiliz lehenagoko markaren izaera bereizgarria
eta ospearen abantaila desleiala eskuratu nahi bada, edo marka erabiliz hari kaltea eragin badiezaiokie.

b) erregistratu gabeko marka baten edo bestelako ikur baten gaineko eskubideak ondorengo markaren erregistro-eskabidea
aurkeztu baino lehen eskuratu badira edo, bestela, ondorengo markaren erregistro-eskabidea aldarrikatzeko lehentasun-data
baino lehen, eta erregistratu gabeko marka edo ikur horrek titularrari eskubidea ematen badio ondorengo marka baten
erabilera debekatzeko.

c) marka baten erabilera debekatu badaiteke paragrafo honen 2. paragrafoaz eta b) idatz-zatiaz bestelako lehenagoko
eskubide baten arabera eta, batik bat:

i) izenarekiko eskubidea dela eta,

ii) norberaren irudiarekiko eskubidea dela eta,

iii) egile-eskubidea dela-eta,

(1) L 11 EO, 1994-1-14koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- iv) industria-jabetzaren eskubidea dela-eta;
 - d) lehenagoko marka kolektibo baten berdina edo antzekoa bada, eta hark ematen duen eskubidea iraungita badago eskabidea aurkeztu baino gehienez hiru urte lehenago;
 - e) lehenagoko berme- edo ziurtapen-marka baten berdina edo antzekoa bada, ematen duen eskubidea iraungita dagoenean eskabidea aurkeztu baino epe bat lehenago, eta epea estatu kideak erabaki badu.
 - f) produktu edo zerbitzu berdinetarako edo antzekoetarako erregistratutako lehenagoko marka baten antzekoa edo berdina bada, eta eskubidea iraungita badago ez delako berritu eskabidea aurkeztu baino gehienez bi urte lehenago, non eta lehenagoko markaren titularrak ondorengo marka erregistratzeko baimena eman duen edo bere marka erabili ez duen.
 - g) eskabidea aurkeztu den datan, marka nahasi egin badaiteke atzerrian erabiltzen zen eta oraindik erabiltzen den marka batekin, eskatzaileak eskabidea fede txarrez egin badu.
5. Estatu kideek baimendu ahal izango dute, baldintza egokiak badaude, marka baten erregistroa ukatu edo baliogabetu beharrik ez izatea, lehenagoko markaren edo eskubidearen titularrak ondorengo marka erregistratzea onartzen badu.
6. 1etik 5era arteko paragrafoek diotena gorabehera, edozein estatu kidek erabaki ahal izango du 89/104/EEE Zuzentarauak dioena betetzeko behar diren xedapenak indarrean sartu aurretik indarrean zeuden erregistroa ukatzeko edo baliogabetzeko arrazoiak aplikatzea erregistro-eskaera xedapenok indarrean sartzeko data hori baino lehen egin zuten markei.

5. artikulua

Markak ematen dituen eskubideak

1. Erregistratutako markak eskubide eskusiboa ematen dio titularrari. Titularrak edozein hirugarreni ukatu ahal izango dio, bere baimenik ezean, trafikiko ekonomikoan edozein ikur erabiltzea:
- a) erregistratutako markaren produktu edo zerbitzu berdinetarako bada;
 - b) lehenagoko markaren berdina edo antzekoa izanik, eta markaren eta ikurraren produktuak edo zerbitzuak berdinak edo antzekoak izanik, jendea nahasteko arriskua badago; hau da, ikurra eta marka lotzeko arriskua.
2. Era berean, edozein estatu kidek erabaki dezake titularrak edozein hirugarreni debekatu ahal izatea bere baimenik gabe berdina edo antzekoa den edozein ikur erabiltzea erregistratutako markaren antzekoak ez diren produktu edo zerbitzuen trafikiko ekonomikoan, baldin eta marka horrek ospea badu estatu kidean, eta ikurra bidezko arrazoirik gabe erabiliz markaren izaera bereizgarriaren edo ospearen abantaila desleial bat eskuratu nahi bada, edo kalte egin badiezaioke.
3. Bereziki, 1. eta 2. paragrafoko baldintzak betetzen direnean debekatu ahal izango da:
- a) ikurra jartzea produktuetan edo haien aurkezpenean;
 - b) ikurrarekin produktuak eskaintzea, merkaturatzea edo helburu horiekin biltegitratzea, eta zerbitzuak eskaintzea edo ematea;
 - c) ikurrarekin produktuak inportatzea edo esportatzea;
 - d) ikurra erabiltzea merkataritzako dokumentuetan eta publizitatean.
4. 89/104/EEE Zuzentzua betearazteko beharrezkoak diren arauak indarrean sartu aurretik estatu kide horren legeriari jarraituz ezin bada debekatu ikur bat erabiltzea 1. paragrafoko b) idatz-zatik edo 2. paragrafoko baldintzetan, ezingo da aldarrikatu ikur hori gehiago ez erabiltzeko eskubidea.
5. Estatu kide batean, ikur bat produktuak edo zerbitzuak bereiztea ez den beste helburu batzuetarako ez erabiltzeko aplikagarriak diren xedapenei ez diete eragingo 1. paragrafotik 4.era arteko paragrafoek, baldin eta ikur hori bidezko arrazoirik gabe erabiliz etekin bidegabe bat atera nahi bazaio markaren izaera bereizgarriari edo ospeari, edo kalte egin badiezaioke.

2008/95 EE Zuzentzua (EBren Egunkari Ofiziala, L 299/25, 2008.11.8).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

6. artikulua

Markaren eraginen muga

1. Marka-eskubidea eduki arren, titularrak ezingo die hirugarrenei debekatu trafiko ekonomikoan honako hauek erabiltzea:

a) beren izena eta helbidea;

b) produktuaren edo zerbitzuaren zer-nolakoari, kalitateari, kopuruari, erabilerari, balioari, jatorri geografikoari, produktua lortu den edo zerbitzua eman den garaiari edo beste ezaugarri batzuei buruzko oharrak;

c) marka, beharrezkoa denean produktu edo zerbitzu baten erabilera adierazteko, batik bat osagaiak edo ordezkak direnean;

betiere, erabilera hori industria- edo merkataritza-arloko jardunbide leialen arabera egiten bada.

2. Marka-eskubidea eduki arren, titularrak ezingo die hirugarrenei debekatu lehenagoko tokiko eskubide bat erabiltzea trafiko ekonomikoan, baldin eta estatu kidearen legeriak eskubide hori aitortzen badu, aitortutako lurraldearen mugen barruan.

7. artikulua

Markak emandako eskubidearen amaiera

1. Marka-eskubidea eduki arren, titularrak ezingo du debekatu marka hori erabiltzea titularrak berak edo bere baimenarekin Erkidegoan merkaturatutako produktuetan.

2. 1. paragrafoa ez da aplikatuko titularra produktuak ondoren merkaturatzearen kontra egoteko legezko bidezko arrazoiak daudenean, batik bat produktuen egoera, merkaturatu ondoren, aldatu egin denean.

8. artikulua

Lizentzia

1. Markaren lizentziak egin ahal izango dira erregistratutako produktu edo zerbitzu guztietarako edo haietako batzuetarako, eta dagokion estatu kideko lurralde osorako edo zati baterako. Lizentziak eskusiboak edo ez-esklusiboak izan daitezke.

2. Marka baten titularrak marka-eskubideak aldarrika ditzake, lizentziadunak lizentzia-kontratuko edozein xedapen urratzen badu; adibidez,

a) iraupena;

b) marka erabil daitekeen modua, erregistro bidez babestua;

c) lizentziaren produktuen edo zerbitzuen zer-nolakoa;

d) marka erabil daitekeen lurraldea, edo

e) lizentziadunak egindako produktuen edo emandako zerbitzuen kalitatea.

9. artikulua

Tolerantziagatiko preskripzioa

1. 4. artikuluko 2. paragrafoaren arabera, lehenagoko marka baten estatu kide bateko titularrak bost urtez segidan eta jakinaren gainean utzi badu estatu kide horretan ondoren erregistratutako marka bat erabiltzea, ezingo du aurrerantzean

2008/95 EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 299/25, 2008.11.8).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

eskatu ondorengo marka baliogabetezko eta ezingo du erabiltzearen aurka egin ere, ondorengo markaren produktuen edo zerbitzuen lehenagoko marka arrazoituz, non eta ondorengo markaren eskabidea ez den fede txarrez egin.

2. Edozein estatu kidek ezarri ahal izango du 1. paragrafoa aplikatzea 4. artikuluko 4. paragrafoko a) idatz-zatian adierazitako lehenagoko marka baten titularri, bai eta 4. artikuluko 4. paragrafoko b) edo c) idatz-zatietan aurreikusitako lehenagoko eskubide bat duenari ere.

3. 1. eta 2. paragrafoei dagokienez, ondoren erregistratutako marka baten titullarrak ezingo du lehenagoko eskubidea erabiltzearen aurka egin, nahiz eta eskubide hori gerora ezin aldarrikatu ondorengo markaren kontra.

10. artikulua

Markaren erabilera

1. Erregistro-prozedura amaitu eta bost urteren epean titullarrak ez badu marka bat eraginkortasunez erabili dagokion estatu kidean erregistratutako produktuak edo zerbitzuak emateko, edo erabilera hori etenda egon bada bost urtez segidan, marka hori zuzentarau honetako zigorren mende egongo da, ez badago erabilerarik eza justifikatzen duen arrazoirik.

Lehen paragrafoak dioenaren ondorioetarako, erabileratzat hartzen dira hauek ere:

a) marka bat beste modu batean erabiltzea, baldin eta erregistratuta dagoen moduaren izaera bereizgarria aldatu gabe erabiltzen bada;

b) dagokion estatu kidean, produktuetan edo haien aurkezpenean marka esportatzeko bakarrik jartzea.

2. Marka titullarraren baimenarekin erabiltzea titullarrak berak egindako erabileratzat joko da; bai eta marka kolektibo bat, berme-marka bat edo ziurtapen-marka bat hura erabiltzeko baimena duenak erabiltzea ere.

3. 89/104/EEE Zuzentaruak dioena betearazteko beharrezkoak diren neurriak indarrean sartzeko data baino lehen erregistratutako markak direla eta:

a) data hori baino lehen indarrean dagoen xedapen batek zigorrak agintzen baditu marka bat etenik gabeko epe batean ez erabiltzeagatik, joko da 1. paragrafoko lehen lerrokadan aurreikusitako bost urteko epea kontatzen hasiko dela lehenagotik ez erabiltzeagatik kontatzen hasita zegoen beste epe baten aldi berean.

b) Zuzentarau hura betearazteko beharrezkoak diren neurriak indarrean sartu aurretik erabilerari buruzko xedapenik indarrean ez badago, 1. paragrafoaren lehen lerrokadan aurreikusitako bost urteko epeak data hartatik hasiko dira kontatzen.

11. artikulua

Marka bat ez erabiltzearen zigorrak prozedura judizialean edo administratiboetan

1. Ezingo da marka bat baliogabetu haren aurka dagoen lehenagoko marka bat egoteagatik, azken horrek ez baditu betetzen 10. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetako baldintzak, edota 10. artikuluko 3. paragrafoak.

2. Edozein estatu kidek arautu dezake marka baten erregistroa ezin dela ukatu hari aurka egiten dion lehenagoko marka bat egoteagatik, azken horrek ez baditu betetzen 10. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetako erabilera-baldintzak, edota 10. artikuluko 3. paragrafoak.

3. 12. artikulua aplikatzearen kalterik gabe, iraungitzearen errekonbentzio-demanda aurkezten denean, edozein estatu kidek ezarri ahal izango du marka bat ezin dela balio osoz aldarrikatu marka urratzearen prozedura batean baldin eta, salbuespen batengatik, argi geratzen bada marka iraungitzat jo daitekeela 12. artikuluko 1. paragrafoaren arabera.

4. Lehenagoko marka erregistratuta dauden produktu edo zerbitzu batzuetarako bakarrik erabili bada, 1., 2. eta 3. paragrafoen aplikaziorako jo daiteke produktuen edo zerbitzuen zati horretarako soilik dagoela erregistratuta .

12. artikulua

2008/95 EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 299/25, 2008.11.8).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Iraungitzearen arrazoiak

1. Marka bat iraungitzat jo daiteke baldin eta, dena delako estatu kidean ez bada bost urtean etenik gabe eraginkortasunez erabili erregistratuta dagoen produktu edo zerbitzuetarako, eta ez badago erabilerarik eza justifikatzen duen arrazoirik.

Nolanahi ere, ezingo da marka bat iraungi dela argudiatu baldin eta, epe hori amaitu eta iraungitze-demanda jarri bitartean, markaren erabilera eraginkorra hasi bada edo erabilerari berrekin bazaio.

Iraungitze-demanda aurkeztu baino lehen erabiltzen hasteko edo berrekiteko hiru hilabeteko epea dago, eta, goizen jota, erabili ez den etenik gabeko bost urteko epea amaitzean hasiko da kontatzen. Dena den, marka erabiltzen jasi edo berrekin arren, ez da hori kontuan hartuko baldin eta iraungitze-demanda aurkez zitekeela jakin ondoren hasi bada titularrak marka erabiltzen hasteko edo berrekiteko prestatzen.

2. 1. paragrafoak dioenez gain, marka bat iraungitzat jo daiteke baldin eta, erregistro-dataren ondoren:

a) titularraren jardueragatik edo jarduerarik ezagatik, erregistratutako produktu edo zerbitzu baten ohiko izendapen bihurtu bada merkatuan;

b) titularraren erabileragatik edo haren baimenarekin, jendeari nahasketa sor badiezaioke, batik bat erregistroan agertzen diren produktuen edo zerbitzuen izaerari, kalitateari edo jatorri geografikoari dagokionez.

13. artikulua

Produktuen edo zerbitzuen zati bat bakarrik ukatzeko, iraungitzeko edo baliogabetzeko arrazoiak

Marka baten erregistroa ukatzeko, iraungitzeko edo baliogabetzeko arrazoiak markaren edo erregistratu den produktuen edo zerbitzuen zati bati bakarrik eragiten badio, produktu edo zerbitzu horiei bakarrik ukatuko zaie erregistroa, edota horiek bakarrik iraungi edo baliogabetuko dira.

14. artikulua

Marka baten baliogabetasuna edo iraungipena a posteriori erabakitzea

Uko egin zaion edo iraungi den lehenagoko marka baten antzinasuna alegatzen badu Erkidegoko marka batek, lehenagoko markaren baliogabetasuna edo iraungipena *a posteriori* erabaki daiteke.

15. artikulua

Marka kolektiboai, berme-markei eta ziurtapen-markei buruzko xedapen bereziak

1. 4. artikulua kalterik gabe, estatuaren legerien arabera marka kolektiboak, berme-markak edo ziurtapen-markak erregistratzen uzten duten estatu kideek erregistroa ukatuzat edo iraungitzat edo baliogabetzat eman dezakete 3. eta 12. artikuluetan aurreikusten ez diren beste arrazoi batzuegatik, marka horien funtzioak hala eskatzen badu.

2. 3. artikuluko 1. paragrafoko c) letra-zatiak dioena gorabehera, produktuen edo zerbitzuen jatorri geografikoa izendatzeko balio dezaketen ikurrak edo oharrak marka kolektibo, berme-marka edo ziurtapen-marka izatea erabaki ahal izango dute estatu kideek. Marka horren titularrak ezingo dio hirugarren bati debekatu ikur edo ohar horiek merkatuan erabiltzea, betiere industria- eta merkataritza-arloko jardunbide leialen arabera erabiltzen baditu; eta, bereziki, marka hori ezingo da argudiatu izendapen geografiko bat erabiltzeko ahalmena duen hirugarren baten kontra.

16. artikulua

Jakinarazpena

Zuzentarau honek araututako eremuaren barruan, estatu kideek, onartutako barne zuzenbideko funtsezko xedapenen testua jakinaraziko diote Batzordeari.

2008/95 EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 299/25, 2008.11.8).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

17. artikulua

Indargabetzea

89/104/EEE Zuzentaraua indargabetu da (I. eranskineko A zatian adierazitako Erabakiak aldatutakoa). Dena den, epe bat dago zuzentarau horren transposizioa zuzenbide nazionalera egiteko, eta epea bete egin behar dute estatu kideek (I. eranskineko B zatian dago).

Indargabetutako zuzentarauari buruzko aipamenak zuzentarau honi egindakotzat hartuko dira, eta II. eranskineko lotura-
taularen arabera irakurriko dira.

18. artikulua

Indarrean sartzea

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeit egunera sartuko da indarrean zuzentarau hau.

19. artikulua

Hartzaileak

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon emana, 2008ko urriaren 22an.

Europako Parlamentuaren izenean H.-G. PÖTTERING Lehendakaria

Kontseiluaren izenean J.-P. JOUYET Lehendakaria

ANEXO I

PARTE A**Directiva derogada con su modificación**

(contempladas en el artículo 17)

Directiva 89/104/CEE del Consejo

(DO L 40 de 11.2.1989, p. 1).

Decisión 92/10/CEE del Consejo

(DO L 6 de 11.1.1992, p. 35).

PARTE B**Plazo de transposición al Derecho nacional**

(contemplado en el artículo 17)

Directiva	Plazo de transposición
89/104/CEE	31 de diciembre de 1992

ANEXO II

Tabla de correspondencias

Directiva 89/104/CEE	Presente Directiva
Artículo 1	Artículo 1
Artículo 2	Artículo 2
Artículo 3, apartado 1, letras a) a d)	Artículo 3, apartado 1, letras a) a d)
Artículo 3, apartado 1, letra e), frase introductoria	Artículo 3, apartado 1, letra e), frase introductoria
Artículo 3, apartado 1, letra e), primer guión	Artículo 3, apartado 1, letra e), inciso i)
Artículo 3, apartado 1, letra e), segundo guión	Artículo 3, apartado 1, letra e), inciso ii)
Artículo 3, apartado 1, letra e), tercer guión	Artículo 3, apartado 1, letra e), inciso iii)
Artículo 3, apartado 1, letras f), g) y h)	Artículo 3, apartado 1, letras f), g) y h)
Artículo 3, apartados 2, 3 y 4	Artículo 3, apartados 2, 3 y 4
Artículo 4	Artículo 4
Artículo 5	Artículo 5
Artículo 6	Artículo 6
Artículo 7	Artículo 7
Artículo 8	Artículo 8
Artículo 9	Artículo 9
Artículo 10, apartado 1	Artículo 10, apartado 1, párrafo primero
Artículo 10, apartado 2	Artículo 10, apartado 1, párrafo segundo
Artículo 10, apartado 3	Artículo 10, apartado 2
Artículo 10, apartado 4	Artículo 10, apartado 3
Artículo 11	Artículo 11
Artículo 12, apartado 1, primera frase	Artículo 12, apartado 1, párrafo primero
Artículo 12, apartado 1, segunda frase	Artículo 12, apartado 1, párrafo segundo
Artículo 12, apartado 1, tercera frase	Artículo 12, apartado 1, párrafo tercero
Artículo 12, apartado 2	Artículo 12, apartado 2
Artículo 13	Artículo 13
Artículo 14	Artículo 14
Artículo 15	Artículo 15
Artículo 16, apartados 1 y 2	—
Artículo 16, apartado 3	Artículo 16
—	Artículo 17
—	Artículo 18
Artículo 17	Artículo 19
—	Anexo I
—	Anexo II